

Pieza pertsuasiboen tegia

Pieza pertsuasiboak (iragarkiak, propagandazko piezak, bestelakoak) aztertu ahal izateko, ikasle bakoitzak hainbat pieza bilduko ditu, orain hasi eta ikasturtea amaitu bitarte.

Piezak askotarikoak izan litezke, eta, printzipioz, edozein medio eta euskarritatik hartuak. Hala ere, funtzionaltasuna dela eta, bildutako piezok:

- ✓ Txiki samarrak (edo laburrak) izan behar dute
- ✓ Aise jaso, erakutsi eta aztertzeko modukoak

Bildutako piezen analisia, jakina, gero eta konplexuagoa izango da:

- ✓ Kontzeptu berri bat azaltzen denean, dena delako kontzeptu hori ilustratu eta adibidideratu dezakeen piezak biltzen saiatuko gara
- ✓ Litekeena da pieza bat bera egokia izatea kontzeptu bat baino gehiagotarako

Analisirako gida:

1	<ul style="list-style-type: none"> • MARKA • Iragarkiaren titulua (berez duena edota asmatua) • Produktua / alorra • Nondik hartua (ahalik zehazkien: medioa, euskarria, leku-denbora...) • Piezaren sailkapena Informazional-Transformazional kontinuumean
2	<ul style="list-style-type: none"> • Xede-taldea(k) <ul style="list-style-type: none"> ○ Kalkulatu eta definitu ○ Dena delako objektuarekiko aktitutearen funtzioa (kalkulua) ○ Objektuak xede-taldearentzat duen inplikazio / motibazioa (kalkulua) ○ Xede-taldeak duen gaitasuna (kalkulua) ○ Lanketaren ibilbidea (barnetik, kanpotik) (kalkulua)
3	<ul style="list-style-type: none"> • Helburuak zehaztu (Ideiak, sentimenduak, ekintzak; kalkulua) • Mezu nagusia (kokapena, UBP...) • Piezan ageri diren aldagai nagusiak <ul style="list-style-type: none"> ○ Argudioak ○ Kanpoko arrastoak <ul style="list-style-type: none"> ▪ Iturriarenak ▪ Mezuarenak ▪ Testuinguruarenak • Aldagai bakoitzak pertsuasio prozesuan jokatzen duen papera
4	<ul style="list-style-type: none"> • Laburpena eta balorazio pertsonala • Piezak xede-jendearengan eraginik izan dezan abiatu eta gauzatu beharko luketen prozesuak laburki azaldu (edota, bestela, pieza eraginkorra ez dela uste izateko arrazoiak)